




ikastolak

HARTU, TENKA, TRAI
Nafarroa OINEZ '16
VIANA - LOGOZA

ZANGOZAKO IKASTOLA
ZANGOZA



Iraunkortasun taldea

ANA GOMEZ, ANABEL MALLADA, TERE INGELMO, NORA BADRÉS, EVA BANDRÉS ETA AXUN URKIA

“Ekintza asko egiten ari gara birziklapenaren eta kontsumo arduratsuen inguruan”



Ikastolaren jasangarritasunaren alde lan egiten ari den guraso taldea.

Gure ikastolan garrantzia handia ematen diogu iraunkortasunaren sustapenari. Hala, guraso talde bat arduratzen da gai hau lantzeaz.

Zangozako Ikastola

ZANGOZA - Ana Gomezek, Anabel Malladak, Tere Ingelmok, Nora Bandrésék, Eva Bandrésék eta Axun Urkiak osatzen dute Zangozako Ikastolan iraunkortasunaren inguruan lan egiten ari den guraso taldea.

Haiengana zuzendu gara Zangozako ikastolan jasangarritasunaren inguruan egindako lana ezagutu nahian.

Ebaluatu beharko bazenute Oitk 10era ikastolaren jasangarritasuna, nola ebaluatuko zenukete?

-Guk zazpi bat jarriko genioke. Ekintza asko egiten dira birziklapenaren eta kontsumo arduratsuen inguruan. Baina oraindik badaude egin beharreko ekintza gehiago. Gure ustez, instalazioetan inbertitzea funtseskoa da eta horretaz gain, energiaren eraginkortasunean eta kontzientziario lanetan jarraitzea.

Zer sentitzen duzue guraso bezala ikastolaren proiektu batean lan zuzena egitean?

-Konpromiso eta lanaren aldetik

gure seme alabentzat eredugarriak gara eta horrek pozten gaitu. Zeintzuk dira aurtengo helburuak?

-Aurten bi helburu nagusi ezarri ditugu: lehenengoa, kontzientzian eragiteko mugikortasun iraunkorrerako plan bat egitea da. Eta bigarren helburu nagusia Nafarroa Oinezen eraiki zen Oinez Basoaren jarraipenean laguntzea.

Badakigu mugikortasunaren inguruan ikastolako familiei galdetegi bat pasa diezuela seme-alabak ikastolara txirrindulaz kotxez edo oinez datozen jakiteko. Zeintzuk izan dira lortutako emaitzak?

-Hasteko esan beharra dugu oso harrera ona izan dugula eta partehartzea erabatekoa izan dela. Emaitzei dagokienez, ikasle gehienak oinez datoz ikastolara baino itzulera kotxez egiten dute. Arrazoiak erositutasuna eta denboraren aurrezpena direlarik. Bestalde, txirrindularen erabilera eskasak atezioa deitu digu eta erabilera bultzatzeko eta errazteko bidean (bide gorria, txirrindulaz uzteko lekua...) lan egin behar dela argi utzi dute. ●

“Egindako galdetegi baten bidez jakin dugunez, ikasle gehienak oinez datoz ikastolara baino itzulera kotxez egiten dute”

Energia iraunkortasunaren aldeko apustua

Gure ikastolan urteak daramatzagu energia jasangarriaren alorrean aurrerapausoak ematen.

ZANGOZA - Zangozako ikastolak urteak daramatza energiaren jasangarritasunaren alde apostu egiten. Hainbat urtez lan egin genuen CRANA erakundearekin SOUSTENERGY europar proiektuan, gure ikasleak, irakasleak eta familiak energia aurreztearen gaien eta kontsumo arduratsuan sentsibilizatzen.

2015-16 ikasturtetik hasita, Nafarroako Eskola Iraunkorren Sarean, EsenRED proiektuan, sartu gara sentsibilizazioa honekin jarraitu nahi dugulako, gure ikastola gero eta jasangarriagoa eta iraunkorragoa izan dadin.

Hiru urtetarako planteatu ditugun

helburuak hauek dira: Zangoza herrian gero eta kotxe gutxiago erabiltzea ikastolara etortzeko, eta Udala eta mankomunitatearekin harremanak eta elkarlana sustatzea; guraso eta ikasleen aldetik baso jasangarriaren jarraipena egitea eta Oinez Basoko mantentze lanetan parte hartzea; ikastolaren eraikuntzaren plangintza energetikoa aurrera eramatea, geroz eta jasangarriagoa izan dadin; hezkuntza komunitatearen partaidetza guztia informatua izatea; eta arlo kurrrikularrean ikasleak ingurugiroaren hezkuntzan konpetenteak egitea inguruarekiko erabaki arduratsuek hartzeko gaitasunak garatuz.



Zangozako Ikastolak antolatutako ekimenetako bat.

Plangintza hau aurrera eramateko ezinbestekotzat jotzen da hezkuntza komunitate guztiaren inplikazioa (zuzendaritza, gurasoak, klaustroa eta ikasleak). Jada, guraso talde bat lanean ari da mugikortasun jasangarriaren inguruan. Ikastolara joateko bideak aztertzen dituen galdetegi bat prestatu du, horri ikastolako %98ak erantzun dio. Diagnostika egina dago, orain martxan jartzea besterik ez da falta, ea hiru urte barru Zangozako gure ikasleak oinez edo txirrindulez etorri eta joan daitezten lortzen dugun.

LURRAREN EGUNA Hau guztia dela eta, bihar lurraren eguna ospatuko dugu ikastolan. Horretarako ekintza ezberdinak antolatu ditugu goizean zehar egiteko. -Z.I.

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Nola joan ohi dira ikastolara Zangozako Ikastolako ikasle gehienak?
 2. Zein dira aurten ezarri dituzten bi helburu nagusiak?
 3. Nola deitzen da Nafarroako Eskola Iraunkorren Sareko proiektua?
- Zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera bidali eta honako datu hauek aipatu: izen-abizenak, ikastetxea, adina eta telefonoa.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA: Unai Iturbide (Baztan Ikastola), Unax Reparaz (Argia).
OSASUNA (8 sarrera): Tafallako eskolako Hugo O'Neill eta Marcela Jiménez, Eneko Ayerra (Erreniega) eta Mikel Villanueva (Xabier Zubiri).
ASEGARCE (4 sarrera): Ander Lizarraga (San Fermin Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoru dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.